

HERNANIK

kronika

2003 urtea
Abuztuak 15
Ostirala
Alea: 850
www.kronika.net

ETXOLABERRIKO MINAK ETA INGURUA GARBITZEKO AUZOLANDEGIAK IZAN DIRA UDAN

LUIS MARKO OTXOTORENA:

“Gure aita guarda joan zen minatara eta gu han jaioak gara, baina, ordurako geldituta zegoen dena”

■ Minak 1910etik 1920ra bitartean gelditu zirela dio Markok eta berak fabrikak osorik ezagutu zituztela, baina, ez martxan ■ Uholde batzuetan bidea eta zubiak eraman omen zituen urak eta berritzea asko kostatzen zelako gelditu ote ziren minak esaten omen zen.


ETXOLABERRIKO mina inguruak garbitu eta planoak ateratzen aritu dira hainbat gazte aurtengo udan, auzolandegietan. Minei buruzko datu gehiegirik ez dago, ordea, eta hariari tiraka-tiraka altsotarren gana iritsi gara. Bederatzi senidetatik sei bertan jaio ziren, minatako etxeen, Benta Mudaz. Aita, Jose Maria Marko, guarda joan zen Goizuetatik 1919an, Anbrosia Otxotorena emaztea eta Dionisia, Paulina eta Joxe Kruz seme-alabekin. Etxolaberrin jaio ziren Fermín, Bernardina, Manuel, Luis, Juanito eta Jabier.

Uholdeen ondorioz itxiak

Luis Markok aitzera omen du uholde haundiak izan ziren batean minatara iristeko zubiak eraman zituela urak eta bidea hondatu. Guztia berritzea garestiegia zela-eta itxi omen zituzten minak. Fabriketako materiala zaintzera joan omen zen aita eta 1938 artean bizituzten ziren minatako etxeen. Fabrikak, ordea, kiebra jo zuen eta kobrato gabe egon zen urtetan beren aita “ez zioten ordaintzen, baina, uzten baldin bazuen eskubideak galduko zituen eta urtetan egon ginen han”. Minatako nagusiak Bilbo ingurukoak zirela dio Markok “lehenengo nagusiak Tiburtzio Iraguen behar zuen izan, baina, nik ez nuen ezagutu. Gerora Felix Gorospe azaltzen zen, zaldi gainean. Bizkaiatik etortzen ziren, Bilbo aldetik edo”. Azken urteetan hango txatarra



Minatako etxe atarian (Benta Mudaz) ateratako argazkia. Ezkerretik Ja-
bier, Bernardina, Anbrosia, Juanito eta Jose Maria.



Luis Markok eman dizigu minetako ingurua berak eza-
gutu zuteneko azalpenak.

ateratzera joan ziren eta handik ateratako diruarekin kobrazu zuten zerbaite altsotarrek. Bernardinak dioenez “txatarra ateratzean kobrazu zuen zerbaite aitak, baina, 14.000 erreale zo-
retan gelditu ziren hala ere”. Txatarra ateratzzen Inazio Zerain eta Añuako Joxe Ramon aritu omen ziren idiekin, eta horretarako bidea pixka bat hobetu behar izan zuten. Bidea Ur-
mendi baserritik zen fabrikara eta etxera, baina, gaur egun erabat hondatua dago.

Beruna eta zinka

Etxolaberriko minatifik dirudi-
enez beruna eta zinka ateratzten

zuten. Harria goiko matxakan txikitzen zen eta hautsa sare batean pasa eta harriak, bolakiko errota batetara pasatzen ziren. Errota hau danbolin haundi baten modukoa zen eta barruan burnizko bola batzuk zituen, bueltaka hastean harriak txikitzeo. Beste sare batean bereizten ziren hautsa eta puska larriagoak. Hautsa zakutan ateratzzen omen zuten handik eta pala moduko batzuekin puska larrienak ostera ere gora botatzen zituzten, gehiago txikitzeo. Makinaria guzti hau aldenik aldeko ardatz haundi batek mugitzen zuen eta makina bat edo beste martxan jartzeko

poleak erabiltzen ziren. Ardatza mugitzeko turbina bat zegoen, goikaldeko kanaletik ura tuberi batean jeitxi arazita mugitzen zena. Altsotarrek ez zuten guzti hau martxan ikusi, baina, makinak bertan ezagutu zituzten eta aurrekoek esandakoik dakizkite xehetasunak.

Olaberriko zubia

Luisen dio izenak ez direla erabiltzen orain berak ezagutu zituzten bezala. Etxolaberriko minak ez omen zieten deitzen berak, “minak” baizik, eta bakoitzak omen zuen bere izena, San Jose, San Blas eta abar. Handik errekan beheraxeago

dagoen zubi erromatarri Olaberriko zubia esaten omen zitzazoen eta ez Etxolaberriko zubia, orain bezala. Presari, berri, Olaberriko eta Kartalako presa. Orain, berri, Etxolaberriko presa da.

Leku hura ezagutu nahi duenak Etxolaberriko zubia jartzen duen kruzera joan behar du Ugaldetxon bidea hartuta Ur-
menditik aurrera. Erriora jaitsi eta ezkerraldeko erreka hartuz iritsiko da lehenago fabrikak eta etxea zireneko lekura. Dagoeneko dena eroria dago, baina, aztarnak badira garai batean minak eta mugimendu haundia izan zen paraje horretan. □

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Kardaberaz 39
Tel.: 943 55 27 87
20120 Hernani

Arrandegia
Mari Fe

Nagusia 36
943 550 489 | Orkologa 17
943 552 741

HERNANI

Jatetxea
Venta Berri

Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxia

GSE
Lan aholkularitza
Fiskala
Kontablea

Tel.: 943 550254
Faxa: 943 335801
Atzieta 51 - behe 20120 Hernani

Catalana Occidente

Aseguruak

Bautista Biurrarena Etxegoien

Kardaberaz 40 - behe
Tel.: 943 332440
Faxa: 943 556602
Mobila: 610 292701
20120 Hernani



Ezkerrean: Gabino Etxeberria eta Ixabel arreba. Eskubian: ongi etorriko agurra dantzatzen.

Gabino Etxeberria atzo atera zen Draguignango kartzelatik eta ongi etorria egin zitzaien Hernanin

■ Etxeberria 12:00etan utzi zuten aske, Junquerako mugan, Katalunian, eta zai zituen 20 lagun Hernanira ekartzeko ■ Omenaldia egingo diote abuztuaren 23an.

GABINO Etxeberria hernaniarra atzo atera zuten kartzelatik, 7 urteko kondena bete eta gero. Etxeberria 12:00etan utzi zuten Junquerako (Katalunia) mugan eta han zai zituen familia eta lagunak. Hernanira arratsaldean iritsi zen eta ongi etorria egin zitzaien Garin taberna aurrean.

Harrera beroa Hernanin
Etxeberriak jende asko zuen zai Hernanin eta ongi etorria egin zioten Garin taberna aurrean. Lehendabizi Etxeberriak hitz batzuk egin zituen. Esan zuenez "eskertzeko da ongi etorria baina, ezin dugu ahaztu oraindik asko eta asko daudela Euskal Herritik kanpo". Ondoren ongietorria antolatu zute-

nek hitz egin zuten eta salatu zuten gisa honetako kasuetan azken egunera arte "indefensio izugarria" bizi izaten dela, ez

Gabino Etxeberria:
"Ezin dugu ahaztu oraindik asko eta asko daudela Euskal Herritik kanpo".

delako jakiten zer gertatuko den espetxeratuta egondako-ekin, Frantzian aske uzten dituztenean. Ondoren bertso-lariak eta dantzariak izan ziren

eta Ekitaldi bukaeran Etxeberriak Garinen jarrita zegoen argazkia kendu zuen eta txanpaina atera zuten denentzat.

24 urte kanpoan
Gabino Etxeberriak 54 urte dauzka eta 24 urte pasa ditu aldegindako. Frantziako poliziak 1996an atxilotu zuen Parisen, ETAko partaide izatea leporatuta eta 7 urte pasa ditu Fresnes eta Draguignango espetxeetan. Atzo aske utzi zuten, 7 urteko kondena bete eta gero.

Omenaldia abuztuaren 23an
Gabino Etxeberriari omenaldia egingo zaio abuztuaren 23an, larunbata, Tilosetan. Omenaldia 19:00etan hasiko da. □

INGURUKO HERRIETAKO FESTAK

Goizuetan eta Donostian jende asko espero da gaur, asteburu atarian

EGITARAUA: GOIZUETA ETA DONOSTIAKO JAIAK

GAUR GOIZUETAN

07:00 Diana Tolosako dultzaineroekin.
08:00 Entzierroa Itziarko Saka-ren zezenekin.

10:30 Meza Nagusia eta Amabirjinaren urteroko Prozesioa.

12:00 Bonba japonesak opariekin.

12:30 Txistulariak, erraldoiak eta buruhaundiak, herriko kaleetan.

12:30 Pelota partiduak, eskuz binaka. Gazteak eta lehendabiziko mailako afizionatuak.

18:00 Zezenak, herriko plazan.

20:00 Bertsolariak: Irazu, Maia, Agirre eta Legarreta. Gai jartzen: Manolo Arozena.

22:00 Euskal Presoen aldeko Afari Herri-

koia, Umore-Ona elkartean. Gero Euskal Presoen aldeko kalejira.

00:00 Dantzaldia Trakets taldearekin eta Igandea txaranga herriko kaleetan.

GAUR DONOSTIAN

10:00 Skate Haur Txapelketa, Añetoan.

10:30 III Aste Nagusiko Billar Txapelketa, Idiaker kaleko gizarte elkartean.

13:00 Dantza aperitibo, Zurriola terrazan.

17:30 Haur festa, Zuloaga plazan.

18:00 Zezenak Illunben.

18:00 Fanfarreak kaleetan.

18:30 Txotxongiloak, Amara parkean.

19:30 Dantzaldia, Jose Maria Sert plazan.

19:30 Aizkolariek Urrezko Kopa, Trini-

de plazan.

20:00 Fila 7 taldearen Yo me bajo en la proxima... antzelana, Antzoki Zaharrean.

22:45 Su Artifizialak. (Valentzia)

23:00 Fila 7 taldearen Yo me bajo en la proxima... antzelana, Antzoki Zaharrean.

23:15 Zezensuzkoak.

23:30 Gau latino, Errege Katolikoetan.

23:30 Adeshoras-en emanaldia, Kataluña plazan.

23:30 La caja de Pandora, Sagasesen.

23:30 Eraso eta Raizox, Paseo Berrian.

23:30 Alboka, Zuloaga plazan.

00:00 Iralerako 6 taldearen Berbena, Paseo Berrian.

00:30 Djak, Zurriolako terrazan.

FUTBOLA



Hernani eta Zaragozako taldeak iazko partidua hasi aurretik.

Javi Perez Vacas Memoriala jokatuko da gaur Zubipen

■ Zaragozako Stadium Casablanca eta Hernaniko jubenilak neurruko dira ■ Goizeko 11:30etan Zubipen.

JAVI Perez Vacas zenaren omenezko 2garren memoriala jokatuko da gaur Zubipen. Iaz jokatu zuten bi taldeek jokatuko dute aurten ere: Hernani batetik eta Zaragozako Stadium Casablanca taldea bestetik. Izan ere Javi Perez Vacas Hernaniko Kubekoa zen, baina, harreman estua zuen Zaragozako taldearekin.

Partidua gaur goizeko 11:30etan da eta partidu ostean banatuko dira sariak. Iaz, zaragozarrek irabazi zuten memoriala, Hernaniri 3-4 irabazita, eta partidu dotorea atera zen. Zaragozako taldea Hernanikoa baino kategoria altuagoan dago eta gaur taldea indartuta jokatuko dute hernaniarrek.



Partidu polita jokatu zuten iaz Hernanik eta Stadium Casablanca.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaiztegi 8
☎ 943 551933
- Gauetan: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6
☎ 943 363549